

# BESTELAKO XEDAPENAK

## LEHENDAKARITZA

### 3348

*27/2021 DEKRETUA, ekainaren 3koa, lehendakariarena, zeinaren bidez eguneratzen baita Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeko kideen izendapena.*

Lehendakariaren urriaren 24ko 31/2019 Dekretuaren bitartez, Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeko kideak izendatu ziren.

Geroago, Euskadiko Udalen Elkarteak bi kide aldatzeko proposatu dio lehendakariari.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 89. artikuluan ezarrita dagoenarekin bat etorritz, tokiko maila instituzionaleko kideak lehendakariak izendatuko ditu, ezarpenik handiena duen euskal udalen elkarteak proposatuta.

Horregatik, hau

#### EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Honako hauek Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordeko kide izendatzea, udalerrien ordezkari gisa:

Titularra: Ander Añibarro Maestre jauna, Laudioko alkate-presidentea, Josune Irabien Marigorta andrearen ordezkari.

Titularra: Gurutze Etxezabal Iturrioz andrea, Oresako alkateordea, Eneko Maioz Ganboa jaunaren ordezkari.

#### AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Dekretu honek ematen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, hargatik eragotzi gabe EHAAn argitaratzea.

#### AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Argitara bedi dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, denek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 3an.

Lehendakaria,  
IÑIGO URKULLU RENTERIA.